



Escola txiki bakoitzetik udal, irakasle eta ikasle ordezkari bana igo zen oholtzara. Goiko lerroan daude alkateak; Erdiko lerroan irakasleak eta hitza hartu zuten ordezkariak, eta beheko lerroan eskola txikitik mundura zabaldutakoa, txikien fabore mintzatu zen. Antonio Belokik, ikasle zaharrenen ordezkariak, duela 25 urte Bidanien festa antolatu zutenekoa ekarri zuen gogora. Lurdes Imaz, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko koordinatzailea mikroan, eta ondoan Izaskun Karrera, Eskola Txikien Koordinakundeko aurreko lehendakaria.



Ezkerretik eskuinera: Mikel Olanok Eskola Txikien Koordinakundeko lehendakaria ikurra ematen ari zaie bizitzera eskola hauei eskaini dioten bi irakasleri: Mito Vega eta Ixiar Irulegi. Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak udalen ordezkari moduan hitz egin zuen eta Martin Garitano Ahalduen nagusiak landa garapeneraren ikuspegitik. Bernardo Atxaga, eskola txikitik mundura zabaldutakoa, txikien fabore mintzatu zen. Antonio Belokik, ikasle zaharrenen ordezkariak, duela 25 urte Bidanien festa antolatu zutenekoa ekarri zuen gogora. Lurdes Imaz, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko koordinatzailea mikroan, eta ondoan Izaskun Karrera, Eskola Txikien Koordinakundeko aurreko lehendakaria.

• Gipuzkoako Eskola Txikien 25. Festa • 26 herriren bihotza

Hezkuntza publikoa eta herri proiektua batzen ditu eskolak Gipuzkoako 26 herri txiki eta auzotan. Bere oinarri ditu hiru hanka: udalak, irakasleak eta guraso-ikasleak. Hirurek elkartuta babesa eta bultzada eman zioten mugimenduari Larraulen, ekainaren 3an.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Argazkiak: Yolanda Gonzalez

EKITALDI NAGUSIAK Gipuzkoako eskola txikien pisua oholtzaratu zuen. 23 alkate eta zinegotzi igo ziren, eta Juan Karlos Izagirrek hitz egin zuen: “Eutsi eskola txikiei, herri eta auzoak bizirik egon daitezten”. Ondoren 26 irakasleak taularatu ziren eta Mito Vegak eta Ixiar Irulegik hartu zuten hitza: “Zaindu adin aniztasuna, gure altxorra hori da eta”. Gurasoen ordezkariak igo zen ondoren, EHIGEko Ana Eizagirre eta Lurdes Imaz, Baika-rako Imanol Zubizarreta eta Eskola Txikien Koordinakundeko aurreko lehendakari Izaskun Karrera. Imazek gogorarazi zuenez “eskola txikietan gurasoen parte-hartzea ezinbestekoa denez, badugu hauengandik zer ikasia”. Martin Garitano Ahalduen nagusiak, taulara igo eta “Aldundiak beti babestuko dituela” hitz eman zuen. Herri bakoitzetik bertan ikasitako edadetuena igo zen ondo-

ren (asko 80 urte bueltakoak), tartean Isabel Belar, Angiozarko 97 urtekoa. Antonio Belokik hitz egin zuen horien izenean, euskararentzat eskola hauek harrobi direla azpimarratuz. Ordezkari bakoitzari Mikel Olanok, Eskola Txikien Koordinakundeko lehendakariak, eskola txikia irudikatzen duen hiru hankako aulkia eman zion.

Ondoren egungo ikasleak igo ziren, eta Karlos Irazuk egindako logotipoa osatu zuten, hezkuntza haur bakoitzari nola egokitzen den adierazten duena. Larraulgoek Olaberriakoei eman zioten lekukoa, hurrengo urtean festa han izango da eta. Bernardo Atxaga izan zen bukaerako ezustekoa. Bere arbasoak Larraulgoak zirela argitu ostean, txikia proportzioan indartsuagoa dela azaldu zuen Galileo Galileiren pasartearen bidez. Jexux Mari Irazuk egindako bertsoa elkarrekin kantatuz bukatu zen ekitaldia, eta ikasle zaharrenek uso mezulari bana askatu zuten amaieran, han esandako hitzak lau haizetara zabal ditzaten. ■

